



Perlak saileko hamabost film lehiatuko dira Udalak babesten duen Donostia Hiria Publikoaren Saria eskuratzeko

Udalak eta Zinemaldiak doako 1.000 sarrera banatuko dituzte langabeen artean

Perlak sailak 17 film luze erakutsiko ditu-aurren, eta horietako hamabost lehiatuko dira Udalak zazpigarren urtez jarraian babesten duen Donostia Hiria Publikoaren Saria eskuratzeko. Udalak donostiarrei egindako omenaldi gisa planteatzen du golardoa, haiek baitira bozketa bidez saria ematen dutenak. Golardoa Europako Kultura Hiriburuaren testuinguruan sortu zen eta, horrenbestez, Donostia 2016 Europako Kultura Hiriburuaren legatu gisa dirau.

Armani Beauty-k babestutako Perlak saileko obrek nazioarteko beste zinema-jaialdi batzuetan kritikaren txaloak edo sariak jaso dituzte. Victoria Eugenia antzokian gauzatuko dira film horien emanaldiak eta filmaren lehenengo emanaldira bertaratutako ikusleek aukeratuko dute irabazlea. Saria Zinemaldiaren amaiera-galan emango da.

Donostia Hiria Publikoaren Sariak bi sari hartzen ditu barnean: batetik, film onenaren saria, 50.000 euroz hornitua; eta bestetik, Europako film onenaren saria, 20.000 eurokoa. Sariaren bitartez, betiko hiriarekin lotuta geratuko dira bi filmak.

Eneko Goia Donostiako alkateak gogoratu du aurren Zinemaldiak 70 urte bete dituela, eta hori, bere ustez, "urtez urte publikoaren saria jaso duelako izan da". "Beti esan dugu Donostia Zinemaldia dela munduko zinema-erakustaldi jendetsuenetarikoa, herrikoiena. Horri esker harrotasun eta poztasunez ospatzen dugu aurtengo urteurrena. Urte askorako Zinemaldia izango dugu orain arte bezala publikoaren babesa mantentzen duen bitartean", adierazi du alkateak.



laz, Céline Sciammaren *Petite Maman* lanak eskuratu zuen film onenaren Donostia Hiria Publikoaren Saria –Zinemaldian aurkeztu baino lehen, Berlingo zinema-jaialdian lehiatu zen–, eta Emmanuel Carrèrek irabazi zuen, berriz, Europako film onenaren saria, zehazki, *Ouistreham / Between Two Worlds* filmarekin–Cannesko Quinzaine des Réalisateurs atala ireki zuen lanari hasiera eman zion obra–.

Doako sarrerak langabeentzat

Bestalde, Zinemaldiak eta Udalak Zinemaldirako 1.000 txartel banatuko dituzte premia ekonomiko handienak dituzten kolektiboen artean, Kursoalen eta Belodromoan filmak ikusteko aukera izan dezaten. Donostian erroladatutako 18 urte gorako langabeek eskatu ahalko dituzte tiketak.

Alde batetik, sarrera-txartelen eskaera irailaren 14ko 9:00etatik irailaren 16ko 14:00ak arte egin ahalko da Arroka plazako Udal!nforen bulegoan, bai eta 010 telefonora deituz edo Udalaren webgunearen bidez ere. Bestetik, Udal!nforen aipatutako bulegoan 9:00etatik 14:00etara jaso ahalko dira identifikazio-dokumentua, langabe-agiria et inprimatutako sarbide-eskera erakutsiz betiere.

Jose Luis Rebordinos Zinemaldiko zuzendariak eskerrak eman ditu Udalak Zinemaldi inklusiboago baten bidean aurrera jarraitzeko emandako laguntzagatik. “Harrotasunez esan ohi dugu Donostia Zinemaldiaren bereizgarri nabarmena publikoa dela, baina hainbat arrazoi direla eta, gizarteko sektore batzuek ezin dute sarrera bat erosi. Ekimen honekin eta baita beste batzuekin ere -Gipuzkoako SOS Arrazakeriarekin egiten dugunarekin adibidez-, arrakala hori apur bat txikiagoa izaten saiatzen gara”, adierazi du.